

BEZEROAREKIKO HARREMANAK:



Guk eskaintzen ditugun produktuak ikuspegi inobatibo bat dute ingunearen etorkizuneko egoerari begira. Pertsonak haien egunerokotasunean pilatzen duten plastikoari irtenbide onuragarri eta erabilgarri bat eskaintzen diogu, plastiko kantitate horiek zabortegetara bidali beharrean, plastikozko botil eta tapoiei nolabaiteko bigarren bizitza bat eskaintzen diegu eta erabilera ezberdinak ahalbietzen ditugu, hala nola, motxilak eta

sakelako-telefonoen fundak. Bezeroekiko harremanari erreparatuz, gure zerbitzuak izango duen harremana hurbila izango da, hau da, bezeroak edozein momentutan gure zerbitzu edo ondasunei buruzko dudaren bat duenean, gu prest egongo gara haiei erantzuteko, baita ere haiek gure enpresan egingo ditugun ekintza edo aldaketei buruz ohartaraziko ditugu jakiteko zer nolako mugimenduak izango ditugun eta haiek onuragarriak izan daitezzen edo ez ere esateko, haiek ere badutelako garrantzi handia eta enpresako mugimenduei buruzko iritzia emateko eskubide osoa izango dutelako. Baina berebizikoa izango litzateke, bezeroek duten portaera gurekiko errespetuzkoa eta formala izatea; izan ere, guk enpresa bat dugu eta honetan ez dira bezeroak atal bakarra, badaude beste hainbat proiektu ezberdin eta horiekin aurrera egiteko beharra dugu, enpresa hazi dezan modu onuragarri batean. Beraz, esan bezala, garrantzi handia emango genioke bezeroek duten edozein arazori eta horiei aurre egiteko beharrezko den edozer egingo genuke haiek ondasunen eta enpresaren ikuspegi onuragarri eta lehiala izan dezaten.

Horren eraginez bezeroen atentzioa piztuko dugu, gure egoera naturalari hobekuntza nabarmen bat aplikatuz eta haiekin izango dugun harreman hurbila edukiz. Orduan, esan bezala gure enpresan izango ditugun produktuekin ondasun inobatiboak sortuko ditugu eta haiekin jarraituz, etorkizun batean proiektu berriak azalduko genizkiekegu bezeroei, haiek biztanleriak ikusten duen etorkizuneko ingurune kutsadura hori alde batera uzteko, ingurumen natural eta egonkor bati begirako helburua izanik.

